

Alondegi inguruko lanak ia amaiturik

Azpiegiturak » 464 autorentzako lekua duen aparkalekua eta 6.000 m² dituen plaza berria inauguratu zituzten atzo.

INIGO TERRADILLOS

Aste honetan bertan Uzturre Asistentzia Gune berriak atek zabaldu ditu, eta mendekotasuna duten adinekoentzat, gaixo mentalentzat nahiz eguneko zentroko erabiltzaileentzat martxan dago. Berritzen ari diren zonalde honetako, hau da, Alondegi inguruko obrak bere osotasunean amaitzeko, Asistentzia Gunearen ondoko eraikina -etxebizitza tutelatuak hartuko dituen- baino ez da falta, atzo bertan inauguratu baitzituzten bertako plaza eta aparkalekua Udaleko ordezkariak.

Alondegiko aparkalekua atzo inauguratu bazuten ere, badira hila bate batzuk autoak aparkatzen hasi zirenetik. Bigarren pisua, egoiliarrena, bete a egon ohi den



Udaleko ordezkariak Alondegia aparkaleku berrian, atzo, i.t.

arren, lehenengo solairuak, errota-ziokoak, ez du horrelako harrera izan. Udal ordezkarien arabera, kanpoaldeko obrek eragin zuzena izan dute horretan. Aste honetan obrak amaitutzat eman dituzte, eta aparkalekuaren atzealdean gera-

tzen den kalea eta sarbidea guztiz irekita daude. Atzoko egunez, ohi baino auto gehiago ikus zitezkeen aparkatuta bertan, eta aurrerantzean ere hala izango dela uste dute Udalekoek.

Hain zuzen ere, herritarrek

nahiz kanpokoek aparkaleku berria ezagutu dezaten eta bertan auto aparkatzera animatzeko, igande honetatik, irailaren 26tik, datoren ostiralera, urriaren 1era, doan aparkatzeko aukera emango du Udalak.

Herriko aparkaleku handiena

Bi solairutan banaturik 464 auto aparkatzeko lekua du parkingak, horietatik 242 errota-ziokoak eta 222 egoiliarrentzat direlarik. Modu honetan, herriaren erdigunean kokaturiko aparkaleku hau Tolosako handiena bihurtu da, guztira herrian 878 auto aparkatzeko lekua baitago, egoiliarrentzat eta errota-ziokoak direnak kontuan hartuta.

Bada herrian gisa honetako beste aparkaleku bat, Lapurdi plazan kokaturikoa, hain zuzen ere. 221 autorentzako lekua du, horietatik 104 errota-ziokoak eta 117 egoiliarrentzat.

Herriko plaza berria

Aparkaleku berriaren kasuan bezala, Uzturre Asistentzia Gunearen aurrealdean sortu den plaza berriaren lanak ere amaitu dituzte. Alondegia plaza herriko handienetakoa da 6.000 m² baino gehiago baititu, eta aisirako gune berri batez gozatzeko aukera emango die herritarrei.

Laburrak

Osoko Bilkura egingo dute asteartean batzar aretoan

GIZARTEA » Ohiko Osoko Bilkura egingo dute datorren asteartean, hilaren 28an, 08:00etan hasita, udaletxeko batzar aretoan. Diru laguntzen ordenantzaren hasierako onespena edota Amarotz paper fabrika eta Berazubi-Kondeaneko Aldapa (bikoitiak) azpi esparruetako Plan Berezien testu bateratuaren onspena egitea izango dira, besteak beste, Udabatzako kideek jorratuko dituzten gaiak.

Kurtso hasiera dela eta, bilerak Orixe Institutuan

HEZKUNTZA » Orixe Institutuan ondorengo egunetan egingo dituzte bilerak gurasoentzat eta ikasleentzat, kurtso hasiera dela-eta: DBH1eko eta DBH2koentzat hilaren 27an izango dira; DBH3 eta DBH4koei zuzendutako hilaren 28an izango dira; eta Batxilergoko lehendabiziko eta bigarren mailakoentzat hilaren 30ean jarri dituzte bilerak. Guraso eta ikasle guztiak deitu dituzte parte hartzera.

Erretzeari uzteko taldea osatuko du Minbiziaren Aurkako elkarteak

Gizartea » Urriaren 6an hasiko dira, eta astean ordu eta erdiko saio bat egingo dute; ikastaroa doan izango da.

ren 6an hasiko dira. Astean ordu eta erdiko terapia bilerak egingo dituzte. Plaza mugatuak dira, eta izena eman nahi dutenek elkartearekin jarri beharko dute harremanetan, 09:00etatik 14:00etara 943 4577 22 zenbakira deituz.

Minbiziaren Aurkako elkartetik azaltzen dutenez, erretzeari uzteko eta unerik gogorrenak gainditzeko teknikak landuko dituzte. Diotenez, ez dago erretzeari uzteko miraririk, baizik eta esfortzua eskatzen duen prozesu pertsonala da. «Elkartetik prozesu horretan lagunduko dugun», adierazi dute.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalak eta Minbiziaren Aurkako elkarteak antolatuta, erretzeari uzteko taldea osatuko dute. Ikastaroa doan izango da, Minbiziaren Aurkako elkarteak Tolosan duen egoitzan (Emeterio Arrese, 2) emango dute, eta urria-



AUKERA HANDIA ETA GUZTIA

Kalitatezkoa

EDARIAK



ELIKAGAIAK



JANTZIAK



DISKOAK, LIBURUAK, DVDak...



ESKULANGINTZA



400





www.euskalherriko **PLaza**.com



SARTU ETA EROSI GUREAN

Kalean da 'Alex, nire laguna' haurrentzako lana

Amezketak » Testuak Mikel Gurrutxaga amezketarrak egin ditu eta irudiak, aldiz, bere arrebak, Maite Gurrutxagak.



Iruñean egin zuten aurkezpena. HITZA

ERREDAKZIOA

Kalean da jada IV. Etxepare Saria jaso zuen lana, Mikel Gurrutxaga eta Maite Gurrutxaga anai-arreben *Alex, nire laguna* haurrentzako liburua, hain zuzen. Epai-mahaiak «liburuaren xarma berezia, testuak eta irudiek zeinen zoragarri egiten dute bat» nabarmendu zuten saria ematerakoan.

Iruñean aurkeztu zuten lana pasa den ostegunean eta Pamiela argitaletxeak kaleratu du 14 euroren truke.

Ixabelen istorioa

Lanean Ixabelen istorioa kontatzen da. Neskatoak munstro bat hartu du lagun, mustro bihozbera.

Ametsezko laguna da eta bera-ekin batera bakardade uneei aurre egiten die eta sentimenduak

» FITXA

- **Izenburua.** 'Alex, nire laguna'.
- **Gaia.** Neska baten eta alegiazko lagun baten arteko harremana.
- **Nabarmenezko moduko datuak.** Etxepare Sariaren irabazlea, bertan gai hauek lantzen dira: familia, haurren psikologia, bizileku aldaketa, herriaren eta hiriarren arteko desberdintasunak eta adiski-

detasuna, besteak beste.

- **Egileak.** Mikel eta Maite Gurrutxaga. Mikel Gurrutxaga helduentzako zein umeentzako zenbait kontakizun laburren egilea da. Maite Gurrutxagak Arte Ederrak ikasi zituen Leioan eta Bartzelonan, baita Irudigintza ere Bartzelonako Escola Donnan. Haurrentzako

ko zenbait libururen irudiak egin izan ditu.

- **Argitaletxea.** Pamiela.
- **Orrialde kopurua.** 32 orrialde.
- **Salneurria.** 14 euro.
- **Hizkuntzak.** Euskaraz ('Alex, nire laguna'), gaztelaniaz ('Mi amigo Alex') eta galegoz ('O meu amigo Alex').

berari agertzen dizkio. Baina, lagun mutu horren agerpenak gutxitu egiten dira Ixabelen adiskide berriak egiten dituen neurrian. Alex apurka-apurka desagertu egingo da eta haurtzaroko oroitzapen gozoa bihurtuko da.

Etxepare Saria

Etxepare Sariet dagokionez, 2004an urtean sortu zituzten Nafarroako euskararen arloko zenbait udal zerbitzuz.

Lehen bi edizioetan saria haurrei eta helduei zuzendutako narrazioek jaso zuten. 2006an aldiz, Etxepare haurrentzako albuma sortzeko beka bihurtu zen eta 2009an sortu zen beka hori sari. Horiek horrela, amezketarrek 6.000 euro jaso dituzte eta lana argitaratu diete, gainera.

Amezketarrekin batera Iñaki Zubeldia ikaztegiatarra da saria jaso duen eskualdeko idazlea. Zubeldiak *Katalina kontalaria* lanarekin lortu zuen izendapena 2008. urtean. Liburuko marrazkiak Estibalitz Jalonek egin zituen.

Behe-ahotsez osatutako abesbatza abiarazi nahi dute

Tolosa » Oraingoz ostiraletan biltzea adostu dute; Eguberrietan abestea izango da euren lehen erronka.

lehenengoa, Eguberrietan gabon kantak abestekoa izango da.

Horretarako astean 2 orduko entseguak egingo dituzte, ostiraletan 19:30etik aurrera.

«Gogoa eta belarri on samarra»

Abesbatzako kide izateko ere ez omen da gehiegi behar: «kantauk lantzeko gogoa eta belarri on samarra edukitzea. Solfeoa jakitea ez da beharrezkoa, baina noski, hori ere baloratuko du zuzendaritzak».

Egitasmo berri honetan parte hartu nahi duten guztiak edota informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 685 70 14 03 edo 943 11 80 32 telefono zenbakietara deitu dezakete.

ERREDAKZIOA

Lagunak Abeslari Taldea osatzeko deia luzatu dute hainbat tolosarrek.

Euren asmoa behe-ahotsez osatutako abesbatza osatzea da eta horretarako Tolosako zein Tolosaldeko herritarren laguntza eskatzen dute.

Proiektuko arduradunek argitu dutenez, ez dituzte konpromiso gehiegi hartu nahi eta horregatik,



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Irudikatu mundua BERRIArekin

Egin harpidedun eta jaso
ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.

Ezaugarriak:

- Kamera digitala, 9 megapixelekoa
- TFT pantaila, 2.4 hazbetekoa
- Irudiaren berrizkin ezin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz
- Zoom digitala, x8 anguluko handitzea
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonoa
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat BERRIAren harpidedun izateko.

Ezaugarriak:
samsung LE32C450

Telebista 32 hazbeteko pantaila laua du, eta D-Net+ irudi prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du, HDMI haragune bat, PCrako sarrera bat eta eurokonektore bat audio eta bideo konfigurazio guztiekin lotzeko.

Urriaren 15ean,
telebista hau zotz egingo dugu
BERRIAren harpidedunen artean,
Elektraren eskutik.

Harremanetarako: 943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

aukerazazu, **BIZIEUSKARAZ** berria



Herensugea jaitsita, hasi dira San Migel jaiak

IRURNA » Atzo arratsaldean Festa Batzorkeko kideak igo ziren udaletxeko balkoira eta beraiek izan zuten aurtengo San Migel jaietako hasiera emateko ardura. Suziriak eztanda eginda, zapi berdeak lepoan jarri eta ez zen dantzarako musikarik faltatu. Jarraian, barrikotea egin zuten eta Egan taldearekin dantzaldia izan zuten. Gaur Haur eta Gazteen

Eguna ospatuko dute. 12:00etan, haurrentzako euskal festa eta jokoak izango dira. 13:30ean, mutilen dantza-soka izango da. 14:00etan haurren bazkaria eta 14:30ean gazteena izango da. 15:00etatik 17:30era, txu-txu trenea eta puzgarriak egongo dira eta jarraian Poxpolo eta konpainia taldea izango da. 18:30ean, nesken dantza-soka eta

19:00etan sagardo dastaketa izango dira. 21:00etan gazte festako afaria egingo dute Aizpuruan. Eta 23:00etan Bartzelonako Cabovelles herriko Colla de Gitanes taldearen dantza ikuskizuna izango da. Eguna bukatzeko kontzertuak izango dira: Red Veil, Governors eta Kerobia taldeen eskutik. **E. MAIZ**

42 nerabe prest agertu dira Gaztelekuaren etorkizuna zehazteko

Villabona » DBH-ko ikasleak dira eta atekak zabalik dituzte. Pausuz pausuz proiektua gauzatzen doaz, Udala eta gazteak.

ERREDAKZIOA

Villabonako Udala ahalegin berezia egiten ari da azken urteetan Gaztelekuaren etorkizuna gazteekin batera definitu ahal izateko, eta ahalegin horretan gazteei parte hartzeko deia zuzena zuzendu izan diete. Bada deialdiak egin ostean, 42 nerabe agertu dira prest Villabonako Udal Gazteria Politiketan parte hartzen jarraitzeko.


Asteazken arratsaldean udalarekin egin zen bilerara joateko DBHko ikasle guztiak deituta zuden. Jesusen Bihotza ikastolakoak zein Ernio-bea Institutukoak agertu ziren; neskak eta mutilak, billa-bonarrak edota aldameneko herrietakoak eta lehen, bigarren zein

hirugarren mailakoak. Eta, Gazteria zinegotzia den Maialen Abaigarrek zuzendu zuen bilera.

Bi helburu nagusi izan ziren: lehenengoa, Gaztelekuaren inguruko informazioa ematea, hau da, zabalteko aurreikuspenak, ordutegiak, espazioak... Izan ere, nerabeek 2009. urtean zehar proiektua osatzeko iritzia eman zuten eta hori oinarri izanik eman dira hurrengo paus guztiak.

Bigarrena, Gaztelekua zabaldu bitarteko bigai konkretuetan parte hartzeko gonbitea luzatzea: barruko materialak erosteko orduan lehentasunak jartzeko eta Gaztelekuaren webgunearen diseinua bere gustura moldatzeko. Gazte guztiak izena eman zuten talde batean edo bietan ekarpenak egiteko.

Honekin batera erreportajeak egiten ari dira eta bideo grabaketak. Guztia, beranduago webgunean bertan zintzilikatu dute. Epeak ongi joanez gero, azaroak 21ean aurkezteko asmoa dute.



Parte-hartzaileekin lotuta jardunaldiak egin zituzten. **E. EZBIZA**

Oraindik parte hartzeko aukera dago

Udal ordezkariak, gogorazazi nahi dute 12 eta 17 urte bitarteko nerabe guztiak parte hartu dezaketela bigarren egitasmo hauetan. Ateak guztiz irekiak dituzte. Interesatuak gazteria@villabona.net helbidera

mezu bat zuzendu beharko dute, zein taldean parte hartu nahi duten zehaztuz.

Edota beste bidea blogaren bidez izan daiteke, www.villabona-gaztelekua.wordpress.com helbidetan. Bertan eskura dago informazio ezberdina.

Bihar Alegia, Asteasu, Bidegoian eta Ibarren azokak izango dira

Azokak » Aukera ugari izango da produktu ezberdinak erosteko. Bertako produktu ugari izango da.

ERREDAKZIOA

Asteasuko Udalak, hamabost urtez jarraian, azoka eguna antolatuko du. 10:00etan irekiko ditu atekak 14:00ak arte. Arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara egongo da.

Ganaduaz gain, artisauak, elikagaiak, trikitilariak edota zanpantzarrik izango dira. Azokarekin batera, mikologia erakusketa egongo da. 60-65 postu egongo dira. Bigarren urtez, Arroz-esne Lehiaketa ere burutuko da. Goizean zehar, esne behien erakustaldia ere izango da. Gainera, esnea banatuko dute, hau da, edalontzian bertako esnea banatuko dute, jendeak edan dezan. Arratsaldean berri, haur eta gaztetxoek zuzenduta, Gorritiren animaliekin izango dira Asteasun.

Asteasukarekin batera, hala ere, Alegian, bertako baserritarren produktuak ere izango dira. Bidegoian, bere aldetik, Kultur Astearen baitan, Goiatzko frontoian egingo dute. Eta Ibarren, *Ibarra, piparra eta azoka* ospatuko dute.

Taberna - Jateketa
Zaharren Biltokia
Jai zoriontsuak, igarai!
• Aste osoan eguneko menua
• Zure aurrekontuari egokitzeko gara
• Menu berazikiak
Tel.: 943 69 26 32 • Mikal Deuna Plaza, 8 • IRURNA

BEROZUKI S.L.
Berginako • Berrizko • Gato • Aizpuruako
Eguzki pluhak • Berrizkoak • Gato • Aizpuruakoak
Berrizkoak
Tel.: 943 69 26 32
Fax: 943 69 26 32
Berrizkoak
Berrizkoak

Uda honetan, Martin Mantxo tolosarra AHTren inguruko informazioa zabaltzen izan da Irlandan eta Ingalaterran. Itzuleran hitzaldien balorazio positiboa egin du.

AHT Euskal Herritik kanpo

MAIER UGARTEMENDIA

Uda honetan, euskal aholtsak entzun ahal izan dira Irlandan eta Ingalaterran. AHTa Euskal Herrian inoiz egin den azpiegiturarik handiena dela kontutan hartuta guztiz ulertzekoa da aldeko zein kontrakoan aholtsak eta iritziak behin eta berriaz entzutea. Horren erakusle dira Euskal Herrian bertan eta baita hemendik kanpo ere egiten diren ekitaldi ezberdinak. Hemengo berri maiz izaten dugu, baina, komeni da hemendik kanpo egiten diren ekimenen berri izatea, zer egiten den jakin eta baloratu ahal izateko.

Euskal Herritik kanpo dagoen mugimenduaren adibide da, uda honetan Martin Mantxo ekintzaileak egin duen bira. Zehazki Irlandan eta Ingalaterran ibili da AHTren inguruko informazioa zabaltzen. Abuztuan egin zuen usetekabeen ateratako bira hau, eta bost hitzaldi eman ahal izan zituen. Horietako hiru Irlandan eskaini zituen; Omagh hiririk gertu bat, klima aldaketaren aurkako ahanpalekuan eta beste bi Rossporten eta Dublinen. Ingalaterran, aldiz, Bristol eta Brightonen eman zituen. Hala ere, ez zen nahi adina lekutara iritsi. Ezinezkoa izan baitzen Belfast, Glasgow eta Londreseko hitzaldiak ematea.

Hitzaldi hauek ematera joateak bi helburu nagusi izan ditu. Bata AHTren inguruan hemen dagoen egoeraren berri ematea. Hau da, AHTren ezaugarriak, sortutako suntuipena (mendiak, basoak, errekek), instituzioen ardura, informazio falta, historia, berarekin dakartzan lanei lotutako kalteak (energia, porlana, harrobiak) kontsultan falta eta oztopatzea, nekazarien egoera, garraioa, garapena... azaltzea izan da. Bigarren helbu-



AHTren obrak direla eta Ugane auzoko bizilagunak kexatu egin dira behin baino gehiagotan. A. IMAZ

ria berriz, bertako jendea eta antzeko erakundeak ezagutu ahal izatea; eta bide batez, beraiekin loturak egitea.

Lehenengo hitzaldiak Irlandakoak izan ziren. Hitzaldi hauetan, AHTa zer den azaldu behar izan zuten, izan ere, beraientzat ez da arazo bat. Han ez dago horrelako trenik eta hemen gertatzen denaren aurka hango ekologistek beste zenbait proiekturen ordeztu AHTa proposatzen dute. Esate baterako, Londreseko Heathrow aireportua zabaltzearen ordeztu AHTaren proiektuaren alde egiten dute, baina Mantxoren ustez «eraginak ez daude ondo ikertuak».

Hemengo zenbait ekintzailek jasandako egoera ere gogora ekarri zuten hitzaldietan. Han ere, zenbait ekintzaile atxilotuak izaten baitira, bertako polizierekin izandako tirabirengatik. Rossporteko ekintzaile bat, Niall Harnett, espetxetik askatu zuten beraiekin hara iritsi ziren egunean eta «berriro ere AHTren aurkako ekintzailek jasotako erasoak edo beste antzeko kasu batzuk buruan» zituen Mantxok.

Lehen esan bezala, oso garran-

tzitsua zen jendea eta beste erakunde batzuk ezagutzea. Rossportera herrialde guztietako ekintzaileak gerturatzen dira, esate baterako alemaniarrak, txekiarrak eta italiarrak zeuden euskaldunarekin batera. Baita ingeles asko ere.

Dublineko saioan bereziki, elektrizitate konpainien inguruan hitz egin zuten. Egun horietan albiste zen ESBk (Electricity Supply Board), irlandar elektrizitate konpainiak, estatuangertatzen ari den bezala, prezioak igo zituela. ESB Boroako zentral elektrikoaren jabe da. Zentral hau 2005ean ireki zutenetik Zornotzako biztanleak behin eta berriz adierazi dute zentral honekiko duten desadostasuna. Martin Mantxok dioenez «Boroa eta Euskal Herriko zentral askoen helburua energia sortzea da, gero AHT bezalako garraioak bultzatzeko».

Ingalaterrako esperientzia

Ingalaterran bi hitzaldi eman zituen, bata Bristolen eta bestea Brightonen. Bigarren honetan dozena bat pertsona inguru hurbildu ziren, baina, Mantxok dioen bezala kopurua baino garrantzitsuagoa

da kalitatea. Bertan Earth First!-eko ekintzaile historikoak eta Sch-News albiste-orriko idazleak egon baitziren. «Hitzaldian erakutsi genuenez, EF!-k bertako errepideen aurkako mugimenduan erabilitako ekintza mota asko Euskal Herrian erabili dira, besteak beste zuhaitz etxeak, erresistentzia akanpalekuak, kateatzea, upelak... Horregatik, hau dena diapositibetan erakusterakoan entzuleak AHTren aurkako borrokarekin identifikatzen ziren. Hitzaldia egin eta gero, erakunde horiek interesa eta konpromiso erakutsi zituzten», azaltzen du Martin Mantxok. Hori horrela, badirudi Earth First!-ekoak jada hasi direla hemengo berriak beraien buletinean argitaratzen. Horren adibide, abuztuko alean bertan, Itsasondoko meategietan egindako ekintzen berri ematea. Bertan, AHTren aurkako ekintzaileak upelatan ka-teatu ziren.

Balorazio positiboa da

Azkenik, biraren balorazioa egitekoan alderdi positiboak zein negatiboak ikusten ditu Mantxok. Balorazio negatiboa nahi adina lekutara iritsi ez delako, abuztuko oporrak zirela eta hitzaldiak ezin zirelako zehaztu. Baina, balorazio positibo bat ere egin du. Bertako jendeak hitzaldiak oso interesgarriak eta baliagarriak iruditu zitzaizkiela esan baitzien. Eta, hona etortzeko interesa ere azaldu zien. Azken finean, horrelako bira batean, garrantzitsua da antzeko erakundeak ezagutzea, eta baita hangoek hemengoan lana ezagutzea ere. Honenbestez, esan beharra dago Mantxok uda honetan AHTren inguruko informazioa zabaltzeko lan egin duela. Eta gure errealitateaz azaltzeaz gain, beste na ere ezagutu ahal izan duela.

Tolosaldea Garatzen pozik agertu da Mugikortasun Astearekin

ERREDAKZIOA

Tolosaldea Garatzen pozik agertu da Mugikortasun Astearen baitan egin diren ekitaldiek izandako erantzunarekin. Ekimen nagusiak pasa den asteburua izan ziren: Birarren Eskuko Azoka eta Bizikleta Bira. Biek ala biek «arrakasta itzela» lortu zutela adierazi dute antolatzaileek eta beraz Tolosaldea Garatzen koordinazio-arduradun gisa, «oso positiboz» jo du ekimen bietan herritarrek agertu duten inplikazioa.

Izan ere, pasa den larunbat goizean Villabonako Berdura plazak mugikortasun iraunkorrarekin zerikusia zuten objektu eta tresnaz josi zen eta hamaika gauza erosteko aukera izan zuten goiz goizetik bertaratu zirenek, batzuk herritarrek aldeaz aurretik utziak eta beste batzuk bizikleta dendetatik ekarriak. «Salmenta potoloena bizikletena izan zen; 14 bizikleta saldu ziren, tartean 800 eurotako kostua zuten bat», azaldu dute.

Bizikleta Birari dagokionez, adin tarte zabaleko 100 bat pertsona inguru elkartu ziren Anoetako plazan. Ikaztegiatik Anoetarako ibilbidea 60 pertsonak egin zuten eta Asteasutik Anoetara 40 lagunek. Musika giroaz alaituta, produktua ekologikoez osatutako hamaiketakoak egiteko aukera izan zen Anoetako plazan. Hamaiketakoarekin batera, Tolosaldeko bizikleta denda baterako 300 eurotako erosketa-txartel bat zozketatu zen parte-hartzaileen artean eta irabazlea Iban Alonso tolosarra izan zen. «Antolatzaileok eskerrak eman nahi dizkizuete kanpaina honetako ekimenetan parte hartu duzuen guztioi, zuek partaidetzarik gabe ez bailitzateke izandako arrakasta lortuko», argitu dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



15°
10°

GOIZA
ARRATS.OSTARTEAK
BEROENA
HOTZENA

EURIA
15°
7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Areso.** Uso postuen azken enkantea udaletxean 19:00etan.
■ **Tolosa.** Kabi Alai elkarteak urteko festa egingo du. Bazkide guztiak parte hartzera gonbidatuta daude.

Festak

■ **Aldaba.** 19:30ean txupinazoa; 19:30ean sagardo dastatzea; 21:00etan zahargar doa pilotalekuan bertsolariekin; 23:30ean Elustondo anai-arrebak.
■ **Irura.** 09:00etan Gazte Festaren hasiera plazatik; 12:00etan haurrentzako euskal festa eta jokoak; 13:30ean mutilen dantza-soka; 14:00etan haurren bazkaria; 14:30ean Gazte Festako bazkaria; 15:00etan haurrentzako txutxu trena eta puzgarriak Garbileku plazan; 17:30ean Poxpolo eta konpainia Loatzo Plazan; 18:30ean nesken dantza-soka; 19:00etan sagardo dastaketa; 21:00etan Gazte Festako afaria; 23:00etan Bartzelonako Canovelles herriko Colla de Gitanes taldearen dantza ikuskizuna; 24:00etan hasita, Redveil, Governors eta Kerobia taldeen kontzertuak.

Kultur Astea

■ **Bidegoian.** 15:00etan Bidaniako frontoian marrazki lehiaketa; 17:00etan Zurrumurru taldearen *Pantxika Txinparta, ederra zalaparta* antzezlan; ondoren txokolatada.

Kirola

■ **Tolosa.** Kai-Auto squash torneoa euskal ligaren barruan, Euskal Herria eta Cantabriako raketa onenekin. Partiduak Usabal kiroldegian, egun osoan zehar eta finalak 18:00etan.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidorren, gaur: 19:30ean, *London river*, eta 22:30ean, *Sunshine cleaning*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TURKIA

Paki Ormaetxea: «Kapadozian (Turkia) tximini sorginduen gainean, goizeko seiak aldera, hegan ibili eta amets egin genuen horrelako globo batean!». PAKI ORMAETXEA



GAZTELUGATXE

Karlos Mendibilek argazki hau bidali digu XII. Hitza Argazki Lehiaketan parte hartzeko: «Bermeoko Gaztelugatxe ikusten dena zoragarria da». KARLOS MENDIBIL

A Agurrak



Zorionak!

Udane Altuna (Alegia). Gaur urte bat. Muxu handi bat atton-amon, etxeko eta lehengusuen partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

argazki lehiaketa

XII. HITZA Argazki Lehiaketa Animatu eta parte hartu!

NORA BIDALI?

argazkiak@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora
Irailak 30 arte

HITZA udarako argazki lehiaketa

1. Saria

2. Saria

3. Saria

Parte-hartzaileak HITZako mat...